





JOE SACCO


GERRA GAZAN

ASTIBERRI


HAMASEN
URRIAREN 7KO
ERASOAREN AURREAN,
PARALISIA IZAN ZEN NIRE
LEHEN ERREAKZIOA. HILDAKO
ISRAELDAR ZIBILEN KOPURUAK
IZUTU EGIN NINDUEN, ETA HO-
RREK GAINDITU EGIN ZUEN
ERASOAREN ALDE MILITA-
RRARI BURUZ ONAR NE-
ZAKEEN EDOZEIN JUS-
TIFIKAZIO.



EKIALDE ER-
TAINA ZER DEN
DAKIEN EDONORK,
BAITA ZEHARKA DA-
KIENAK ERE, ARGI IKUSI
ZUEN ISRAËLEN ERANT-
ZUNA BEREHALAKOA
ETA DESPROPORT-
ZIONATUA IZAN-
GO ZELA.



NI OKERRENERAKO
PREST NENGOEN, BAINA
TEORIKOKI BAINO EZ; HERIOTIK
GERTU ARI ZIREN KAZETARI PA-
LESTINAR ADORETSUEK GAZAREN
AURKAKO OLDARRALDIAREN
ERREALITATEA ERAKUTSI ZI-
GUTEN, ETA ERREALITATE
HORI NIRE ULERMENETIK
HARATAGO ZIHOAN.






PALESTINAKO
GAIAZ ASKO IDATZI ETA
MARRAZTU IZAN DUDANEZ,
ZERBAIT ESAN BEHARKO NUËN.
GAZAKO ADISKIDE BATEK HONELA
IDATZI ZIDAN: "MSDZ ALTXA AHOTSA
KRIMEN HAUEN AURKA". ERREGU HURA
KOLPEKA IZAN NUËN BURUAN ZENBAIT
ASTEZ, ASTIRO -AGIAN ASTIROEGI-
ITXAROTEN NUËN BITARTEAN NIRE
PENTSAMENDUEK FORMA HAR
ZEZATEN.




ETA HEMEN
AURKEZTEN DITUT
ORAIN, SORTU ZAIZKIDAN
MODUAN, THE COMICS JOURNAL
ETA FANTAGRAPHICS BOOKS-EK
ADEITASUNEZ ESKAINI DIDATEN ESPA-
ZIO HONETAN. BERAIEK ARGITARATU
DUTE, URTE LUZEZ ETA KONBENTZI-
MENDU OSOZ, NIRE 'PALESTINA'
KOMIKI-SORTA OSOA, BEDE-
RATZI LIBURU GUZTIRA,
BAITA SALMENTA URRIKO
SASOIETAN ERE.

BERAZ,
ADISKIDE,
ZERBAITETA-
RAKO BALIOKO
BALU ERE, AL-
TXATU DUT
AHOTSA.







Geno-
zidioa
da,


ala
autode-
fentsa?


Utz ditza-
gun denak
pozik,
biak direla
esanez.


Hala bada,
terminolo-
gia berria
beharko
dugu.


Nire proposame-
na: "autodefen-
tsa genozida".

Horrek alde
biei eman
beharko
lieke zer
pentsatua.










Letra
eskarlata
berria.



Ziurrenik Jaungoikoa izan zen presidentea-
ren burmuinean haur eta ume leporgabe-
tuen irudiak txertatu zituena, haur
edo ume bakar bati ere ez baitzio-
ten leporik moztu (eta, beraz,
argazkirik ere ez dago).



